

PRENTSA OHARRA

Donostiako XVIII “Gizarte bateratzaile baten aldeko Kriskitin Lasterketa”

Larunbatean, urriaren 19an, 12:00etan Zurriolako pasealekuan. Ostadar Saiarre Kirol Elkarteak Urrezko Kriskitina jasoko du.

Donostia, 2019ko urriak 16a (ONCE). Datorren larunbatean, urriaren 19an, eguerdiko 12:00etan burutuko da behin berriz Donostian ONCEk antolatzen duen “Gizarte bateratzaile baten aldeko” Kriskitin Lasterketa. Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Donostiako Udaletxearen, Eusko Jaurlaritzaren, Kutxa Fundazioaren eta Getariako Txakolinaren babesia jasoko duen froga herrikoia Zurriolako pasealekuan barrena burutuko da, kilometro beteko ibilbidean, eta parte hartu nahi duen orok izena doan eman ahalko du bertan goizeko 10.00etatik aurrerantzean.

Lasterketa Donostiako Udaletxean aurkeztu dute **Rafael Ledesmak**, ONCE Euskadiko Lurralde Presidenteak; **Roberto Dovalek**, Donostiako ONCEren zuzendariak; **Aitziber San Romanek**, Donostiako Udaletxeko Gizarte Ekintzako Zinegotzi Ordezkaririk; eta **Maite Peñak**, Gipuzkoako Gizarte politiketarako Foru Diputatuak.

“Kriskitin lasterketak aurten adin- nagusitasuna betetzen du- adierazi du Ledesmak, azpimarratuz “froga sinbolikoa” dela, “zeinean sailkapenarik ez dagoen parte hartzen duten guztiek irabazten dutelako minutu gutxi batzutan soinean antifaza jantzita gidari baten eskutik ibilbidea betetzeagatik. Donostiarrei pertsona itsuen azalean jartzera luzatzen diegu gonbita, unetxo batez itsuok egunero bizitzen duguna ezagutu dezaten”.

Bere aldetik, Gizarte Politikako foru diputatua den Maite Peñak ONCE-k gizarte “geroz eta inklusiboago” baten alde egiten duen “izugarrizko lana” nabarmendu du, eta pertsona ororen aukera berdintasunaren alde erakunde eta eragile ezberdinek “elkarrekin” egiten duten lana balioetsi du. *“Eskuz esku jarraituko dugu, desberdintasunetatik abiatuta, geroz eta berdina den gizarte bat eraikitzen; gizarte inklusibo batek ezberdintasunaren balioa aitortzea esan nahi baitu, baita aniztasuna errespetatzea eta pertsona batzuek dituzten behar zehatzak aitortzea ere”,* gehitu du diputatuak. Horren isla zuzena da *“jada ohikoa”* den kriskitin lasterketa, aurten 18. ediziora heltzen dena eta *“ez duena irabazle bakarra, baizik eta, denon ahaleginarekin, guztiok gara irabazle”*



Prentsa Kabinetea | Euskadiko Lurralde Ordezkaritza
620102012 • iaga@once.es

grupo social **ONCE**

Bestalde Aitziber San Roman Gizarte Ekintzako Zinegotziak adierazi duenez “18 urtez ONCEk gizarte bateratzaileagoa egiteko aukera ematen digu eta hori biziki eskertzen dugu Donostiako Udaletxetik. Izan ere, kriskitin lasterketan parte hartzeak ikusmen arazo larriak dituzten pertsonen larruan jarrarazten gaitu eta esperientzia hori guztiz baliagarria da pertsona hauek egunero dituzten zailtasun batzuk ezagutu eta sentitzeko; ezinbesteko ariketa herritarrengandik gertuen dagoen erakundeko ordezkariarentzat, beraz. Eta, horrekin batera, kriskitin lasterketak erakusten digu zailtasun horiei egunero aurre egiten dieten pertsonak oztopo horiek gainditu ez ezik besteok gidatzeko gai ere badirela, eta horrek ere ez du preziorik”. San Romanek aldi berean ONCEri eskerra eman dizkio “zuen eskuzabaltasunagatik eta, batez ere, gizarte osoa gaituago egiteko aurrera eramaten duzuen lanagatik”.

Parte hartu nahi dutenek ibilbide labur bat baino ez dute bete behar, Kursaaletako kuboei buelta ematen diena. Parte hartzea edonorentzat dago zabalik, adina edo egoera fisikoa edozein dela ere, oinez bakarrik ere parte hartu ahal izango baitu. Itsu-itsuan korritzeko esperientzia egiteko, beharrezkoa da parte-hartzaileek bikoteka egitea, lekuko edo soka baten bidez elkartuta, haietako batek antifaz bat eramanez. Eta korrikalari guztiek kriskitin bat eramango dute modu sinbolikoan eta itsuentzako entzumen-seinale gisa. Materiala doan emango zaie lasterketaren aurretik.

2019ko Urrezko Kriskitina Ostadar Saiarre Kirol Elkarteak jasoko du

Behin lasterketa amaitu eta gero ONCEk aurtengo Urrezko Kriskitina Ostadar Saiarre Kirol Elkarteari <http://www.ostadarskt.eus/> emango dio, ONCEko web atarian egindako bozketan hiru hautagaien artean bozkatuena suertatu delako, kirol inklusiboaren alde egiten duen lanagatik, gizarteratzearen aldeko kirola egokituaren praktika sustatu eta hedatzeagatik, surf egokitua, atlestismoa edota boccia disziplinen alde eginez, besteak beste.

Hautagaiak izan dira alde batetik ere Basquelands Way <https://basquelandsway.com/es/> Gipuzkoako pertsona itsuei eta ikusmen urritasun latza dutenei ingurune naturaletara txangoak egiteko aukeragatik, tracking-a praktikatuaz, besteak beste Néouvielle-ko Turon mendira 4 emakume itsuk egindakoa, edota Petit Vignemalera ere barra- gidak erabiliaz.

Bestalde, Mindara Elkarteak <https://www.mindara.org/sarrera> Egokide izeneko proiektua abian jarri izanagatik, zeinaren bidez kirol jarduera inklusiboaren garapena eta sustapaneren alde egiten duen lana, baita kirol egokituaren, aisialdiaren alde, eta aniztasun funtzioanala duten pertsonen kirol eremu inklusibak bermatuaz.

Donostiako Urrezko Kriskitinaren sarituen historia

- 2002:** Donostiako Udaletxea
- 2003:** Iñaki Alcorta.
- 2004:** Gipuzkoako Foru Aldundia.
- 2005:** Fortuna K. K.
- 2006:** EHUko Ikaslego Desgaituaren Arretari zuzendutako Zerbitzua.
- 2007:** Tandem gidari boluntarioak.
- 2008:** Futbol Real Sociedad.
- 2009:** Gipuzkoako atleta paralinpikoak.
- 2010:** Gipuzkoako Ostalaritza Enpresarioen Elkarte.
- 2011:** Gaingitzen.- Tolosa- Goierriko Pertsona Gorren Elkarte.
- 2012:** ONGImedia- Komunikazio & Social Media Agentzia.
- 2013:** Topic- Tolosako Nazioarteko Txotxongiloen Zentroa.
- 2014:** ADEMG- Gipuzkoako Esklerosi Anitzeko Elkarte.
- 2015:** Javier García (zendu ostekoa).
- 2016:** Manos K Ríen Elkarte Artistiku Kulturala.
- 2017:** KEMEN Kirol Kluba.
- 2018:** AFAGI- Alzheimerra eta bestelako dementziak dituzten pertsonen eta senitartekoen bizi kalitatearen alde egindako lanetatik.
- 2019:** Ostadar Saiarre Kirol Elkarte.